


XIX. POLITIKA SOZIALEKO BILTZARRA

ONDOEZAREN ESTATUARI AURRE EGITEKO EKINTZA KOLEKTIBOA ETA LAN PSIKO-SOZIALA



2015eko azaroaren 12 eta 13an
Euskal Herriko Unibertsitatea. Arabako Campusa
Gizarte Langintzako U. Eskola
Letren Fakultatea eta Ingeniaritzako U. Eskola
Vitoria-Gasteiz

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ikus bide



parte hartu



SALNAKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBERNO VASCO

HEZKUNTZA, LANBIDE
ETA ENPLEGUEN ARLOA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Vital gizarte ekintza
obra social



biltzarraps@gmail.com



www.ikusbide.org

MATERIALA JASOTZEA, ERREGISTROA

Osteguna, azaroaren 12a, 09:00etan

LEKUA: GIZARTE LANGINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

IREKIERA EKITALDIA

Osteguna, azaroaren 12a, 09:30etan

**LEKUA: LETREN FAKULTATEKO ARETO NAGUSIA
ORDEZKARI INSTITUZIONAL ETA AKADEMIKOEKIN**

LEHENENGO SAIOA

Osteguna, azaroaren 12a goizean

**ERREFORMA NEOLIBERALAK ETA ONDOEZAREN EKOIZPEN
ETA POLITIZAZIOA**

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 10:00etatik 11:15etara

LEHENENGO HITZALDI OROKORRA: GAUR EGUNEKO ESTATUAK ETA BERAIEKIN POLITIKA EKONOMIKOAK: NOREN ZERBITZUAN?

Sandra EZQUERRA, Soziologian doktorea, EEBBetako Oregoneko Unibertsitatea, feminista, aktibista eta Bartzelonako Vic-eko Unibertsitateko irakaslea.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Amaia INZA, Zientzia Politikoan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea, Parte Hartuzeko kidea.

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 11:30etatik 12:45etara

BIGARREN HITZALDI OROKORRA: ONDOEZAREN GIZARTEA ETA SUBJEKTU GAIXOAREN EKOIZPENA

Santiago LOPEZ PETIT, Filosofoa, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, Espai en Blanc Fundazioa.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Noemi BERGANTIÑOS, Zientzia Politikoan doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea, Parte Hartuzeko kidea.

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 13:00etatik 14:30etara

HIRUGARREN HITZALDI OROKORRA: "BOTERE TERAPEUTIKO" ETA TRATAMENDU INDUSTRIARI ALTERNATIBA PSIKO-SOZIALAK

Jesús VALVERDE, Psikologian Doktorea eta Madrیدهko Unibertsitate Autonomoaren irakasle erretiratu, beste liburu batzuen artean "Dialogo terapéutico en exclusión social" liburuaren egilea.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: M^a del Mar LLEDÓ, Psikologo klinikoa, Soziologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea. Ikusbidetako kidea.

BIGARREN SAIOA

Osteguna, azaroaren 12a arratsaldean INDARGABETU/ERALDATZEKE DAUDEN LEGEGINTZA POLITIKAK ETA POLITIKA EKONOMIKOAK LEKUA: INGENIERITZAKO U. ESKOLA

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 15:30etatik 17:00etara

LEHENENGO MAHAIA: ESTATU ZIGORTZAILEA: NOLA DEFENDITU LEGE KRIMINALIZATZAILEEN AURREAN

Paz FRANCÉS, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbideko irakaslea, Nafarroako Salhaketako kidea.

Daniel JIMENEZ, Lege Soziologian doktorea, Zaragozako Unibertsitatea, "Trampas y Tormentos, para una Ecología del Castigo en el Reino de España" izeneko liburuaren egilea.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Elisabet ETXEBERRIA. Soziologoa eta Arabako Emakumeen Asanbladako kidea.

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 17:15etatik 18:45etara

BIGARREN MAHAIA: ATZERRITARREN POLITIKAREN INDARGABETZEA: ATZERRITAR ETA ERREFUXIATUENTZAT GILTZAPERATZE ZENTROAK EUROPAN

Javier GARPARSORO, Abokatu, CEAR Euskadiko presidentea.

Ana FORNÉS, Gizarte Hezitzailea, Valencia ACOGE, CIE-en itxieraren aurkako kanpainian hartzen du parte.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Izaro GOROSTIDI, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea, Parte Hartuzeko kidea eta Laura SORRIBES, atzerritarren abokatu.

OSTEGUNA AZAROAREN 12a , 19:00etatik 20:30etara

HIRUGARREN MAHAIA: DIRU SARREREN BERMEAREN ETA POLITIKA SOZIAL BERRIAREN OINARRIAK

Cesar MANZANOS, Soziologian doktorea , Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan politika sozialeko irakaslea

Francisco Julián RODA, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Langintzako irakaslea eta Iruñako Udaletxeko gizarte langilea.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Ainhoa BERASALUZE, Gizarte Langintzan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea.

Jaialdia **TOPAKETA GASTRONOMIKO ETA MUSIKALA**

OSTEGUNA AZAROAREN 12a, 20:30etan.
Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan
Musika emanaldia: talde sorpresa!!!
Jaialdia borobiltzeko aho gozagarriak
(Parte hartu nahi duten guztientzat irekia).

HIRUGARREN SAIOA **Ostirala azaroaren 13a goizean** **EKINTZA KOLEKTIBOA ETA LAN PSIKO-SOZIALA BAZTERKETA ETA** **ERREPRESIOAREN AURREAN** **LEKUA: LETREN FAKULTATEKO ARETO NAGUSIA**

OSTIRALA, AZAROAREN 13a, 09:30etatik 11:30etara

LAUGARREN MAHAIA: ZENBAIT TESTUINGURUTAN LAN PSIKO-SOZIALEKO **ESPERIENTZIAK: EUSKADI, ESPAINIA, SAHARA ETA MEXICO**

Sara LOPEZ, Zientzia Politikoan doktorea. SOL Komisio legala eta Madrileko Grupo Acción Comunitaria.

Carlos M. BERISTAIN, Medikua, EHU Un Psikologia Sozian doktorea, Nazioarteko Aholkularia, 2015. urteko Eusko Jaurlaritzako "Bakearen eta berradiskitzearen aldeko Gernika" saria.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Irantzu MENDÍA, Soziologian doktorea, Gizarte Langintzako U. Eskolako irakaslea. HEGOAKo kidea.

OSTIRALA, AZAROAREN 13a, 11:45etatik 13:45etara

BOSTGARREN MAHAIA: TRATU TXAR POLIZIALA, TORTURA ETA KRIMINALIZAZIOAREN KASU ESPAINIARRA: SALAKETA ETA BIKTIMEI LAGUNTASUNA

Anais FRANQUESA, abokatu penalista, Iridia-ko kidea (Bartzelonako Giza Eskubideen Defentsaren Aldeko Zentroa)

Jorge DEL CURA, Madrileko "Coordinadora Estatal para la Prevención y Denuncia de la Tortura".

Zigor OLABARRIA, historialaria, Eleak-eko kidea, Eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimendua.

AURKEZLE ETA MODERATZAILE: Ixone FERNANDEZ DE LABASTIDA, Antropologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

ITXIERA EKITALDIA OSTIRALA AZAROAREN 13a, 13:45tira 14:00ra

HELBURUA

Aurtengo Politika Sozialeko Biltzarrean bi erronkei egingo diegu aurre. Lehendabizi, gure gizartearen ondoeza sozialaren egoeren radiografia bat egin, gizarte-gaixotasunen zabaltzea, hauei estatuek ematen dieten bortxazko erantzunak eta eskubideen murrizketak, halabeharrezko migrazioen ondoriozko biolentzia sozialaren hazkunde eta kronifikazioa, giltzaperatze instituzionala eta abarrekin erlazonaturikoa. Bigarrenik, ekintza kolektiboek ekimenak eta biktimei laguntzeko langintza psiko-sozialetik gizarte-ondoezaren aurka egiteko gakoak zeintzuk diren erakutsi. Asmoa, aurreko urtetan bezala, desberdintasun eren hazkundera eta bazterketa prozesuen aurrean sortzen ari diren erantzunei buruzko eztabaida zientifiko eta kritikoa bultzatzea da.

Ondoeza sozialari erantzungo dioten politika sozialak sendotzeko elementuak eskaintzea da helburua, politika kriminalak eta eskubideen murriztea eta deuseztearen aurrean. Politiken kudeatzaile, hainbat instituzio sozial, ekonomiko eta juridikoekin harremanetan dauden profesional zein akademikoek parte hartzeari esker diagnosi eta ekintzarako proposamenak egin nahi dira. Baita instituzionalak ez diren mugimendu eta dinamikekin harremanetan daudenetik ere, hau da, pertsona kaltetu eta solidarioen ardura sozialetik jaio diren maila ezberdineko instituzio eta administrazioekin harreman anitza duten sorturiko proposamen eta zerbitzuetatik.

Helburu orokor honetatik abiatuz, Kongresuak Giza eta Gizarte Zientziekin harremana duten profesional, ikasle, diplomatu eta lizentziatuen zein gizarte ongizateko politiketatik erantzun berriak eman nahi dituzten instituzio zein organizazioen formazio nahiei erantzun nahi die.

METODOLOGIA ETA HARTZAILEAK

Irekiera ekitaldian Kongresuaren edukien aurkezpen orokor bat egingo da, eta ondoren, hiru ponentzi orokorrek gaiak testuinguratzeko balioko dute. Antolatu diren lan mahaietan bazterkeriaren aurkako sei lan eremutan aritzen diren zenbait espezialistek beraien esperientziak azalduko dituzte.

Edonori zuzenduta daude, oro har. Interes berezikoa da eskusio-egoeran dauden sektoreekin lan egiten duten gizarte-mugimenduentzat, profesionalentzat eta elkarteetan zein instituzioetan laguntzarako ekintza eta zerbitzuetan lan egiten duten boluntarioentzat, bai eta unibertsitate-komunitatearentzat ere, eta horren baitan, bereziki, gizarte-langintzako, gizarte-hezkuntzako, enpresa-ikasketetako, zuzenbideko, soziologiako, kazetaritzako, psikologiako eta historiako ikasleentzat, bertan landuko diren edukiengatik.

IKASLEENTZAT KREDITU ETA INFORMAZIOA

Unibertsitateko ikasleentzat, Biltzarreko saioek 15 orduren balioa dute: eta beste 10 ordu emango dira, 2015ko apirilaren amaiera baino lehen aurkeztuko den laburpen-lan bat egiteagatik. Beraz, bi ziurtagiri emango dira: bat parte hartzeagatik, eta bestea lanagatik, finkatutako epearen barruan aurkeztu eta ebaluatu ondoren. Guztira 25 ordu izango dira, hau da, ECTS baten baliokidea. Lanik aurkeztuko ez balitz, Kongresuan parte hartzea 0,5 ECTS izango lirateke.

Gizarte Langintzako Eskola Unibertsitarioko ikasleen kasuan, eta Kongresu hau osagarria denez eta lehentasuna duenez hautazko kredituentzako, aurrean Zentroko Batzarrak erabakita, eta nahiz eta osteguna 12 eta ostirala 13 eskolak bertan behera gelditzen ez diren, eskola orduak Kongresura etorrerarekin bateragarri egiteko asmoarekin, irakasleagoak Kongresuan izen ematen duen ikasleriaren klase ez etorrera errespetatuko du. Gainera, eskatzen duten taldeen eskolak bertan behera geldituko dira, aurrez ikasleriak berak ordezkariaren bidez horretarako proposamena luzatzen badu, eta dagokion irakaslearekin adosten badu.

300 pertsonarentzako lekua dugu; beraz, inskripzioa lehenbailehen egitea gomendatzen da, aurreko edizioetan izandako arrakasta kontuan izanik lekuak berehala beteko direlakoan baikaude: "Adingabeen lege penal berria" (1998), "Kartzela, droga-menpekotasuna eta HIESa; gizarte-lana sistema penalaren aurrean" (1999), "Pobrezia eta arriskua Europan: ongizaterako erronkak Euskadin" (2000), "Kartzela eta giza eskubideak; berme juridikoak, osasuna, giza asistentzia, heziketa eta lana" (2001), "Gazte eta adingabe zigortuak: erantzun judizial, hezigarri eta sozialak" (2001), "Etorkinekin gizarte-lana eta heziketa hartzailea jatorrizko herrialdeetan" (2002), "Gizarte politika eta hiritar segurtasuna: erronkak Europako eta munduko Euskadi batentzat" (2003), "Gizarte-zerbitzuak eta kartzela: alternatibak gaur egungo kultura zigortzaileari" (2004), "Drogei buruzko politika sozialak eta kriminalak" (2005), "Haurreria eta gazteria baztertuak. Politika sozial eta kriminalak" (2006), "Bitartekaritza gizarte gatazketan" (2008), "Gizarte bazterkeriaren eta pobrezia-aren feminizazioaren aurkako borroka" (2009), "Eskubiderik gabeko adingabeak? Babesik gabeko haur atzeritarrak eta gazteria zigortua" (2010), "Kartzela abolitzeko gizarte politikak" (2011), "Gizarte eraldatzeko gatazketan bitartekaritza eta partehartze komunitarioa, politikoa, ekonomikoa, familiara, penala" (2012), "Etorkizuneko gizarte baztertzalea eta honen ondorioak" (2013) eta "Bazterketari aurre egiten dioten borroka, lan eta bitartekaritza esperientziak" (2014).

IZEN-EMATEAREN ORDAINKETA ETA MATERIALAREN GASTUAK:

Izen-ematea arrunta eta murriztua da, bere kostua 30 eurokoa baita. Kopuru hori, lehendabiziko egunean banatuko den materialerako izango da. 30 euroko kopuru hori Azaroaren 11 baino lehen sartu beharko da Kutxabank-eko kontu-zenbaki honetan: 2095 3116 06 1093360245. Diru-kopurua sartzean, sartu duenaren izena eta lehen abizena zehaztu beharko dira. Izena lehenbailehen ematea gomendatzen da, gehienetan azken egunaren aurretik agortzen direlako plazak eta orduantxe bukatzen delako matrikulazioa.

IZEN-EMATEA BIDALI EDO AURKEZTEA:

Biltzarrean izena emateko hainbat bide daude:

1. Gizarte Langintza Eskolako 9. postontzian (César Manzanos) izen-emate orria eta ordainketaren ordainagiria utziz.
2. Posta elektronikokoaren bitartez, biltzarraps@gmail.com helbidera izen-emate orria erantsiz.
3. Fax bidez, 945.01.33.08 zenbakian, izen-ematearen ordainagiriaren kopia bat eta izen-emate orria erantsiz.
4. Posta arruntaren bitartez, César Manzanosi zuzendua, XIX Politika Sozialeko Biltzarra. Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola (EHU). Apraizarren kalea 2. 01006 Vitoria-Gasteiz. Atxiki ordainagiria eta izen-emate orria.

INFORMAZIOA ETA IDAZKARITZA TEKNIKOA: biltzarraps@gmail.com eta 945-014273

Euskera zein gaztelaniako programa, kartela zein izen-emate orrialdeak webgune honetan aurkitu ditzazkezu: www.lkusbide.org

EHUKO irakasle doktoreez osaturiko komite zientifiko-antolatzailea: Noemi BERGANTINOS, Zientzia Politikoan doktorea. Angel ELIAS, Zuzenbidean doktorea. Amaia INZA, Zientzia Politikoan doktorea. Ixone FDEZ.DE LABASTIDA, Antropologian doktorea. María del Mar LLEDÓ, Soziologian doktorea. Carlos M.BERISTAIN, Gizarte psikologian doktorea. Cesar MANZANOS, Soziologian doktorea. Irantzu MENDIA, Soziologian doktorea. Miren ORTUBAI, Zuzenbidean doktorea.